

EAE-KO GAZTEEN KANABISAREN KONTSUMOAREN NORMALIZAZIOA



ABSTRACT

Lan honetan EAEko gazteen kanabis kontsumo aztertu dira grafika batzuen behaketaz eta elkarrizketa baten erabileraz. Ondoren ondorio batzuk atera dira

SARRERA

Kanabisa, marihuana, kanuto edo kalamua. Izen eta aurpegi ugari ditu gure gizartean aspalditik aurkitzen den droga hau. Txinatarrak izan ziren belar honek dituen propietateak aurkitzen lehenengoak. Milaka urteetan bere erabilera eta perzeptzioa aldatu egin dira. Bainan gaur egun zer? Asko dakigu kanabisak dituen eragin fisiko zein psikologikoen inguruan, bainan zaila egiten da gizartean nola ikusia dagoen jakitea.

LANAREN METODOLOGIA ETA HELBURUAK

Lan honek EAEko gazteen kanabis kontsumoa aztertzea du helburutzat, honen normalizazioan zehaztuz. Hau da, zein puntutaraino dagoen marihuana ondo edo gaizki ikusia Euskadiko gazteen artean. Bainan, zer da normalizazioa? Ikuspegi soziokultural batetik behatuta, UAB-ko drogen politiketan aditua Martinez Oró ren arabera, *drogak kulturako parte bihurtzea da. Hau da drogen kontsumoa egoera eta leku ezberdinetan batek egin ditzazken jarduera onargarriztat hartzea, inolako errefusa sortu gabe.* (Originales, n.d.) Hala eta guztiz ere, normaltasuna kontzeptu aski abstraktoa da.

GRAFIKEN AZTERKETA

Hau egiteko, lehenik, Euskal gazteen kontsumo ohiturak aztertuko ditugu. Horretarako 2017 eta 2018 urte artean SIIS fundazioak egindako “La Encuesta sobre Adicciones de Euskadi” erabiliko da, 15 urtetik gorako jendearen kontsumo ohiturak aztertzen dituen ikerketa (ikus azken orriko grafikak).

- Estatistiken arabera 18 urtetik beherako EAEko gazteek noizbait marihuana probatu dute. Edo norbaitek eskainia edo haien kabuz egina hiru gaztetik batek noizbait erre izan du. Kontuan hartu behar da 18 urteetatik behera dela substantzia sikotropikoek garapen fisiko eta mentalean eragin gehien duten momentua.
- Heren batek probatu du, eta esan daiteke behin probatzeak berebiziko garrantzia ez duela. Bainan lehenengo saiakera honek kontsumo

gehiago bultzatzen ditu kasu batzuetan. Egunerokotasunean kontsumitzen du gazteen %4ak.

- Beste drogekin gertatzen den bezala gizonezkoak (edo mutillak kasu honetan) dira gehien kontsumitzen dutenak hauen artean hobe ikusia bait dago, naiz eta emakumeen kontsumoa nabarmen hazi den azken hamarkadetan.
- Drogek, eta cannabisa ez da salbuespen, klase baxuko gazteetan agertzen dira maizen. Gehien bat medio eta ikasketa gutxiko gazteetan gertatzen da kontsumo handiena, aldiz ikasketadunenen artean urriagoa da.
- Eguneroko kontsumoa zabalduagoa dago adin txikikoen artean helduen artean baino. Helduen %2ak kontsumitzen ba du egunero %4ak egiten du gazteen artean.

DATUEN INTERPRETAZIOA

Ikusi dezakegunez marihuanaren kontsumoa ez da txikia, ohikotzat hartzen dute erakunde ezberdinek gazteen artean. Beste drogekin alderatuta alkola eta tabakoaren atzetik maizen erabiltzen dena diote estatistikek.

Droga batzuk ,tabakoa eta alkola esaterako, oso zabaldua daude. Eguneko momentu gehienetan hartu daitezke inungo arazorik sortu gabe eta egoera zehatz batzuetan hauen kontsumoa ukatzea arrarotzat hartu daiteke. Beste droga asko, iniektatu edo esnifitzen direnak esaterako, ez daude hain ondo ikusiak eta giro eta denbora oso zehatzetan edo izkutuan egiten dira. Eta kanabisa, nun kokatzen da espektro honetan? Bi gazteekin hitzegin degu hau aztertzeko.

ELKARRIZKETAK

Bata, lker deitu dezagun anonimatoa mantendu arren, ez da erretzailea. Bitan probatu duela esan digu bainan ezer gehiago. “Bi aldiz probatu det bainan ez zitzaidan gustatu. Biak parranda giroan izan ziren eta nere lagunek eskainia” Bere kuadrillan zazpitik hiruk larunbatero erretzen dutela kontatu digu, eta denek probatu dutela. Gainera esan digu noizbehinka parranda girotik kanpo kontsumitzen dutela, kafea hartzen eskola ondoren edo bazkaldu ostean, eta ez dela arraroa kontsideratzen. “Egia esan neri ug duten bitartean neri ez zait importa eta ez, ez dugu ez kuadrillak ez haiek arazo larririk izan kontsumitzen dutelako”. Ikerren konklusio gixa kontatu digu kanabisaren kontsumoa adin txikikoen artean ez dagoela batere gaizki ikusia gizaratean.

Bestalde Amaiarekin egon gara. Ohiko tabako eta marihuana erretzailea da. Aste tartean behin edo bitan eta astebururo maiz kontsumitzen duela azaldu digu. “Lehenengo aldiz 15 urte nituela probatu nuen tabakoa lagun batzuek bultzatuta eta hau erretzen hasi nintzen. Ondoren porroak probatu nituen gau batean eta gutxinaka gutxinaka nere kontsumoa handitzen joan zen”. Azaldu digu festa giroan inoiz ez duela arazorik izan, eta bere ustez alkola kontsumitzearen kontzeptu berbera dela. Aitortu digu ere bai guraso eta lagunek noizbait aitortu diotela bere kontsumoa ahazi egin zela eta kontrolatu beharko lukeela. “Inoiz ez zait traba handirik jarri porroak erretzeagatik, hauek maizegi erretzeagatik baizik. Azken finean festa giroan *kubata* bat edo *kanuto* bat erretzea antzekoak dira” Azaldu digu bere inguruko jende gehienak erretzen duela edo noizbait erre izan duela, eta zaila ikusten duela guztiz uztea bere inguruan oso ohikoa bait da. Normaltasunari buruz galdetuta kontatzen digu gai tabu bezela kontsideratzen dela askotan bainan gero jendeari ez diola arazorik sortzen beste batek kontsumitzea. “Nere iritziz kontsumoa desmitifikatu beharko zen eta ikastoletan hitzegin eta tratatu. Azken finean helburua, nere ustez, ez da kontsumoa jaistea baizik eta hau kontrolatu, erregulatu eta segurtasuna bermatzea.

ELKARRIZKETAREN INTERPRETAZIOA ETA ONDORIOAK

Beraz datuen interpretazioa argia da. Kanababisaren kontsumoa zabaldua dago euskal gazteen artean eta honek ez du arazo gehiegi sortzen gizaratean. 16 urteko haur batek porro bat piztu dezake (kontextu gutxi batzuk kenduta) eta ez da gaizki begiratu izango, zer esanik ez helduen artean. Ezagutza txikiagoa da aldiz substantzia honek dituen eraginetan eta desintoxifikazio prozesuetan. Iritzi pertsonalera pasaz, kontsumoaren egoera aztertu eta onartu behar da. Hau eragotzi eta mitifikatu ordez kanabisa erregulatu behar da eta droga (ez alkola ez kanabisa) gabeko jarduera sozialak sustatu.

BIBLIOGRAFIA

(n.d.). <https://www.euskadi.eus/informacion/euskadi-y-drogas/web01-a2adik/es/>

Originales. (n.d.). Originales. Retrieved March 24, 2022, from

https://www.aesed.com/descargas/revistas/v40n3_2.pdf

Originales. (n.d.). Originales. Retrieved March 24, 2022, from


https://www.aesed.com/descargas/revistas/v40n3_2.pdf

ERANSKINAK:

1.Grafika:

	Nunca ha probado	Intensidad del consumo				Total
		1-10 ocasiones	11-50 ocasiones	51-100 ocasiones	Más de 100 ocasiones	
Edad						
15-24	52,7	30,1	6,4	4,3	6,4	100,0
25-34	40,5	25,0	12,4	5,8	16,2	100,0
35-54	54,5	23,9	9,6	2,9	9,0	100,0
55-74	79,5	11,8	4,2	1,0	3,5	100,0

2.Grafika:



3.Grafika:

Total	15-19
Alguna vez en la vida	36,5
Últimos 12 meses	24,0
Últimos 30 días	9,9
Diario*	3,6
Mujeres	15-19
Alguna vez en la vida	30,1
Últimos 12 meses	19,7
Últimos 30 días	5,9
Diario*	2,1
Hombres	15-19
Alguna vez en la vida	43,2
Últimos 12 meses	28,4
Últimos 30 días	13,9
Diario*	5,3